- Estetizismoa eta kulturalismoa. Hain zuzen ere, *Mimodramak eta ikonoak* liburuaren zutabe nagusiak dira. Euskal herriko kultura –kultura erlijioso– bildu nahi du bizipen erlijiosoaren historia eginez. Horretarako behar du kulturaren aipamena egin eta kulturalismoa erabili, nahiz eta Espainian erabiltzen zena lotuagorik egon Europako kultura nagusiarekin eta Juan Marik darabilenak lotura bikoitza izan: herri literaturarekin lehenik, eta Elizaren kultura zabalarekin, jantziarekin, europarrarekin bigarren. Liburuaren azken aldean jarritako aipu famatu biek eramaten dute irakurketa bide horietatik. Barandiaran eta Oteiza aipatuz, bide biak batu nahi ditu poetak. Estetizismoa garbi dago bere poesian. Edertasuna bilatzen du, sublime izatea, poesia idealista guztiak bezala. *Mimodramak eta ikonoak* liburuaren sorrera azaltzen duenean, Lekuonak zuzenezuzenean aipatzen ditu kontzeptu biak: estetizismoa eta kulturalismoa:

Eta hona ustekabeen etorri argia: Nire poemaren gaia lehengoa bera izango zen, baina bai liburua eta bai poema bakoitza askoz ere laburragoak behar zuten izan, zuriekin jokatzuz, esaldiak aforismotuz, irudiak kulturizatuz, tratamendua estilizatuz eta koloreztatuz, estetika izanik lege gorena, garaiko poetikaren ildotik [...] Gai berari eutsiko nion: historia izpiritualean izandako ibilbideari, eta eutsiko nion ere sei hegaleko eraikuntzari. Baina liburuak bi zati izango zituen, bi esfera bakarrik. Lehen esfera kobazuloko bizikizunak aurkeztuko ziren, *bestiarium* baten antzera taxutuak. Bigarren esfera *planetarium* bat landuko nuen, indoeuropar mundu-ulerkuntzaren bidetik (Lekuona, 1996, 39).

- Objektu ederren aipamena. Edertasuna ez dago soilik hizkuntza poetikoan, objektu artistikoen aipamenean ere edertasuna agertzen da. Estetikak aurrera egin ahala, objektua bihurtuko da Juan Mari Lekuonaren poesiaren oinarri, eta bere hizkera estetikoa objektu horren definizio ederra eta pertsonala ematea izango da, metafora bihurtu duelarik bere testuaren erabilpen artistiko nagusi. Gauza jakina da Juan Mari Lekuonak arte desberdinen aipuak bildu zituela *Mimodramak eta ikonoak* liburuan (Kortazar, argbea). Denek dute edertasunaren zantzua. Irakur dezagun “Eguzki” poema (1996, 263), eta hor aurkituko ditugu arkitekturari, literaturari, pinturari, diseinuari egindako deiak:

Ate-leihoen moldetari eraikuntza ororen
hargin maisua. Atariak sortalderantz ipin-
tzen dituen, saietarak gibelalde. Eta eguteren
etxekoen gela doratuak. Hitz-ikur
paretetan –heraldikaz lakraturik– armarriak.

- Hizkera ederra. Juan Mari Lekuonaren poesiaren hiztegia irakurtzen duenak –eta itzulpen hau jarraitzen duenak– ikusiko du zein garrantzi handia ematen dion hizkera jasoari. Bere jarrera ez da soilik agertzen kultismoaren erabileran, baizik eta beren-beregi bilatzen du hiztegi jasoaren traza bere poesian. Jarraituko dugu “Eguzki” poemarekin eta seinalatuko dugu nola agertzen den hor hizkera jaso:

“Abside metafisikoen alabastrozko arrosa”
“Ederraren sort-ohe / perladuna”
“Ekia da keramikaren labe, zubien begi,
Eta laku altuen egunezko kontenplazioa”.

Baina edozein poematan aurki ditzakegu metafora ederrak eta hiztegi dizdiratsua:

Arratseko sublimazioak –suteak lekuko–
Amatistez koroatu zuen egunik luzeena

(“Ekain”, 1996, 251).

Zazpi kolorez, zazpi xingolez
Darama andregaiak beloa. Eguzkia
Zehar-etzanean euriaren biribildura

(“Ortzadar”, 1996, 271).

Hitza ere, pulpituak ospez landu zuten,
Erretorikan torniatuz mintzo barrokoa.
Ilunek eta argiek, kontraste bortitza zegiten
Lauki katartikoen ezin-kabitu hanpatutik

(“Axular”, 1996, 281).

- Elementu poetikoen oreka. Juan Mari Lekuonaren poesiak baditu poesia arrazionalista baten trazak. Definizioa eman behar hori, gauzen eta objektuen izaera deskribatu behar hori, eta denaren gaintik egitura osatua, pentsatua, orekatua ia neoklasizista agertu behar hori. Juan Mari Lekuonaren liburuek aldeaz aurretik jarritako eskema bati erantzuten diote. Eskema da lehenik eta ondoren poema, diseinu klasikoak, edo hobe, parnasiano batek aginduko balu bezala. Horrela lortzen du, elementu bakoitza eskema orokorraren barnean duen tokian jarritz, elementu desberdinen arteko oreka. Juan Mari Lekuonak, berak, oso era fin eta sotilez azaldu zigun bere planteamenduaren bidea, eta poema liburuaren barnean egin nahi zuen oreka joera. Batez ere egituraren ikusten zuen hori eta maiz, egituraketa adierazteko etxegintzaren metaforak erabili zituen:

Sentimendu erlijiosoaren historiako aro handietatik bi hartu nituen azkenean: “Gruteskoak” (trogloditismoak), eta “Planeten adar-biran” (eragin indo-europarrekoa). Eta bi alor semantikoek poemarioaren iruditeria biltzen dute berriro. Horietatik lehena kobazuloa, bere gauezko, hotzezko, iluntasunezko, ezintasunezko, bizi-borrokazko bere konstelazioarekin, bestiario baten adierazpen guztiekin. Bigarren alorra, kosmoarena: eguna, argia, festa, egutegia, izarren bidaia gudan eragina duela adieraziz, barnetik harrapatzen gaituen planetario bat islatuz (1996, 55).

- Hizkera zuzenaren desagerpena, prosaismoa uxatzea. Juan Mari Lekuonak izan zuen poesia sozialeko bere garaia, baina orduan ere, poesiari joera sinboliko eta metaforikoa eskatzen zion. Gabriel Arestik gure poesiara ekarri zuen aldaketari eta jarrerari ezin izan zion muzin egin, ezin izan zuen dena ahaztu eta bere bidea egin. Baina garai hartan ere bizirik zen poesia sozialaren eta estetikoaren –sinbolistaren– arteko eztabaidak igaro zirenean, Juan Mari Lekuonak surrealismo humanista baten ildotik *Muga beroak* argitaratu zuen ondoren bere bide estetikoari hasiera eman eta bide zailago, barroko, estetizista, sublimeago batetik jo zuen bere poesiaren langintzan. Orain arte eman ditugun adibideak nahikoa frogatzen dute ezaugarri hori.
- Izaki historikoak esanahien agerbide. *Mimodramak eta ikonoak* liburuan egindako jarraibidea izan zen hau: pertsona historikoak jaso eta haien esanahien azterketa eman. Bai euskal legendak, bai euskal kantutegi zaharreko pertsonaiak, bai eta ere pertsona historikoak, molde askotako izakiak jaso eta “irakurri” egin zituen poetak, bakoitza izaera, joera, sentiera edo molde baten metafora bihurtuz. Argia da bide hau Juan Mari Leku-

narengan. Azken batean bere poema liburuaren bigarren atalean izaki legendarioak eta historikoak bildu ditu kontzientziaren agerpena egiteko. Hor ditugu herri literaturatik hartuak: San Martin Txiki, Atarrabi, eta herri literatura eta historiaren muga Bereterretxe. Historikoak dira aldiz: Axular, Berdabio, Barandiaran.

Juan Mari Lekuonak, bada, Carlos Bousoñori jarraituz, Clara Janések egiten zuen deskribapen horretan bere burua ikusi zuen. Dena dela, kontuan hartu beharko genuke, Janések berak ez duela bere poesia erabat ezaugarri horietan kokatzen: kultura ez du une oro estimatzen, eta nahiago du herri lirika barne espresio zuzen baten agerbide gisa; pertsonaia historikoen objektizazioa ez du maite, bere buruaren bidez heltzen da helburu berberera. Horregatik da adierazgarria bigarren aipua, zeren aipu horretan (eta gehitu dugun hirugarrenean) Clara Janések aitortzen du bere belaunaldiko poetengana hurbiltzen hasia zela bera ere, eta hiru puntu hauetan laburbiltzen du jarrera:

- Estetizismoa.
- Objektuaren zentraltasuna.
- Poesiaren berezko edertasuna.

Puntu hauetan bat etorri zen Juan Mari Lekuonaren estetika. Poeta euskaldunak ere edertasuna jarri zuen bere poesiaren gune eta bihotzean, aipu biotan garbi geratzen denez:

Nire poemetan jaso nahi izan dudana eder barreiatuak ez dauka lehen instantzian ez proba, nostalgia edo errei-bindikazio baliorik batere. Ez daukat gogoan egia edo ontasuna, aldiz guga pilaturiko ederra seinalatzen dut soilik (1996, 55).

Nere helburua ez da, ordea, edukiak komunikatzea, edertasun-sentsazioa agertzea baizik, bere kolore, forma edo eritmoagatik eder den zerbait hitzen bidez bersortzea (1996, 57).

4. Itzulpenaren azterketa

Juan Mari Lekuonak *Enblemak* liburua itzultzen duenerako badu esperientzia zabala itzulpengintzan. Bere eskua egina dago, eta zenbait ezaugarri oso errotuak ditu bere lanean, eta horiek erakutsiko ditu hemen ere.

Lehen aldakia

Lehen-lehenik, adierazi beharko genuke egileak berriro irakurri ez duen aldaki bat dugula begi bistan, agian inprentarako berriro irakurriko luke eta zenbait alderdi aldatu. Beraz, hasiera bateko aldaki bat dugu. Eta hor nabaria da zenbait irakurketa gaizki eginak edo daudela, edo behintzat ez oso ongi adierazita. Ikus dezagun adibide hau (34. or.):

VUELO

Anhelo de nubes, ríos,
de tierra llovida,
cumple el ave
en su órbita libre;
anhelo de bosques, cumbres,
de ilimitada posibilidad de ser.

HEGADA

Hodeien, erreken,
lur bustiaren iorana,
asaskatu du hegaztiak
bere ibil-bira askean;

oihanen, mendi-tontorren
 eta azkenik gabe izateko
 ahalmenaren iorana. asaskatu.

Ikusten denez, bi aldiz errepikatu du itzulpenean aditz nagusia, “asaskatu” hori. Originalean ez da bigarrenez adierazten, joskera garbia da: hiru elementuen jorana egiten du hegaztiak: hodeiak, errekek, lur bustia; eta, aditz nagusiaren ondoren, beste hiru elementu: oihanak, tontorrak, eta ahalmena. Ez da, beraz, aditzik errepikatzen. Euskarazkoan bai, eta azken orduko gehigarria dela ematen badu ere, “asaskatu” aditza errepikatu egiten da, agian, erritmoa hautsiz, esanahia garbiago adieraziz, baina beharrezkoa ez den bigarren esaldia osatuz. Eta horrela, gainera, poema luzeagoa egiten da, sei bertso-lerro izatetik, zazpira igarotzen baita testua. Agian erabateko ez den testua da begien aurrean duguna “Hegada” deituriko poeman. Baina badira beste gaizki irakurriak ere. Ikus ditzagun garbi bi:

37. orrialdean “Kaligrafia” poeman “Caballero de fortuna” itzuli behar du poetak, eta kasik, hitzez hitz egiten du: “zorioneko zaldun”. Beraz, “fortuna”: “zoriona”. Baina gatzelaniaz “Caballero de fortuna” ez da “zorioneko zalduna”, baizik eta ordaindua den zalduna, menturazalea, merzenarioa... Agian, bigarren irakurketa batek lehen irakurketaren hutsak zuzentzeko beta ekarriko zion egileari.

Bada horren antzeko beste gaizki ulertu bat ere. 42. orrialdean, “Bihotza eta lau osagaiak” poeman, “Inmaccesible” hitza agertzen da, eta egileak “igogaitza” gisa itzuli du. Garbi dago hitzak errata bat duela, kontua da jakitea zein den huts mekanografiko hori. Hitzak “inmarcesible” behar luke, gure iritziz, hain zuzen ere “zimeltzen ez dena” da; Juan Mari Lekuonak, ordea “inaccesible” dela hitza

pentsatu du, baina “inaccessible” ez da zuzenean “igogaitza”. Hitza egileak osaturiko irakurketa eta interpretazioa da.

Badira irakurketa zalantzarriak ere: “Ongi egin” poeman (35. or.) Clara Janés poetaren originalak esaera dakar:

*Fortaleza promete,
quanta quita la locura.*

Eta honela ematen du Juan Mari Lekuonaren itzulpenak:

*Sendotasun-agintzaria dakar,
eromenak kendu adina ekarri ere.*

Euskarazko aldakiak ez du zuzen adierazten gaztelaniazkoak dioena.

Lehen irakurketa eta lehen idazketa baten aurrean gaude, bai! Eta ezer baino lehenago egileak izan dituen zalantzak ikusi beharko genituzke. Adibidez, liburuko lehen poema hiru aldiz itzultzen da. Itzulpenetan askotan gertatzen den bezala, originalaren tentua gainditu ez arte, itzultzailea zalantzaz betea ari da, egilearen tonua ez duelako hartu edo oraindik haren idazkera maila ez duelako ongi ezagutu.

Ikus dezagun “Goraka-gora” lehen poema horren itzulpena:

Katamotz bat zelatan gatzarriaren altzoan
eta etengabeko izarrak janaritzen / elikatzen du
gauero
egunsentia etorri arte,
eta biltzen ere du bere argizko izaretan.

Hori dugu lehen aldakia, eta hona hemen bukaerakoa:

Katamotz bat zelatan dago gatzarrizko altzotik,
 eta beti han den izarrak janaritzen du
 gauero
 egunsentia etorri arte,
 eta honek izarra jaso, bere argizko izaretan.

Aldaketaz aldaketa, itzulpena sendotzen joan da. “La” izenondokoa aldatu egingo du eta izena jarri: “izarra”, “gatzarriaren”/“gatzarrizko” zalantza zehaztuz joango da; “altzoan” “altzotik” bihurtu eta poemaren erritmoa indartu egingo du Juan Mari Lekuonak poemaren tonua bilatzen duen artean. Baina bere zalantzen testigantza dugu lehen poema hau. Ondoren ikusiko dugunez, bere itzulpen tekniken testigantza ere bada, baina bihurtuko gara gai horretara.

Zalantzaren erakusgarri ederrak ditugu azken orduko joskera aldaketak, hain zuzen ere, Juan Mari Lekuonak zenbakien bidez adierazten dituen aldaketak. Poema baten aldaki desberdinak eskaintzea behin bakarrik gertatzen bada ere liburuan (“Goraka-gora” aipaturiko hori litzateke bakarra), usuago gertatzen da joskera aldaketa:

EZINBESTEKO MAITASUNA
 |² nire gorputzeko gurpilean
 |¹ maite dudana |³ iltzaturik (4o. or.)

Garbi dago esaldi hori honela irakurri behar dugula:

maite dudana
 nire gorputzeko
 gurpilean iltzaturik.

Edo hurrengo orrialdeko joskera zalantza berbera:

BIHOTZA ETA LAU OSAGAIK
 eta |² diz-diz aurkitzeko:

1 haren lehen begirada
3 arimaren begiak

Horrela idatzirik datorrena, beste era honetan ematea nahi luke egileak.

eta haren lehen begirada
diz-diz aurkitzeko:
arimaren begiak

Edo azkena aipatzearren:

|² su bakarrean biltzen diren hartan;
|¹ adar-abar hilkorrek (42. or.).

Honela irakurri beharko duguna:

adar-abar hilkorrek
su bakarrean biltzen diren hartan.

Beste era bateko zalantzak itzulpenaren argitalpenean adierazi ditugu. Testua beraz, ez da guztiz probisionala, baina ez eta ere erabatekoa, garbi dago egileak utzi zuena ari garela ematen, utzi zuen moduan. Nork jakin nolako aldaketak egingo zituen argitalpena bere esku izanez gero?

“Elevación” / “Goraka-gora”. Luzera doan itzulpena

Juan Mari Lekuonak itzulpen honetan darabilen euskarak ezaugarri nagusi bi ditu lehen begi kolpean: Originala baino perifrastikoagoa da; eta badu jatortasunerako tendentzia markatua. Gure deskribapenean lehen poeman agertzen diren fenomeno linguistikoak hartuko ditugu ezaugarriaren lehen adibidetzat, eta hori izenburuan jarriko, eta ondoren, testuan agertzen diren beste adibide batzuk emango ditugu.

Har dezagun liburuko lehen poemaren izenburuaren itzulpena. “Elevación” da gaztelaniaz. “Goraka-gora” euskaraz. Ikusten denez, luzeagoa da euskaraz: hitz bi erabili izan dira bakar bat adierazteko. Poeman badugu beste adibide bat ere azken bertsoan:

y la recoge en sus sábanas de luz.

“La” izenordearen tokian aipaturiko izena erabili du Juan Mari Lekuonak, eta agertzen ez den subjektua agerian jarri:

eta honek izarra jaso, bere argizko izarretan.

Hamabi silabako bertsoa hamazazpikoa bihurtu du.

Testuan badira beste adibide batzuk. Aipagarriena litzateke 34. orrialdeko “Vuelo” / “Hegada” poema non sei bertso-lerro itzultzeko zazpi bertso behar diren:

Hodeien, erreken,
 lur bustiaren iorana,
 asaskatu du hegaztiak
 bere ibil-bira askean;
 oihanen, mendi-tontorren
 eta azkenik gabe izateko
 ahalmenaren iorana. asaskatu.

Kasu batzuetan ezin delako besterik egin: “Suicida” / “Bere burua hil duena” (52. or.).

Baina, bestela ere, esaldi luzeagoa egiteko joera nagusia da:

19.: *Descifrarlo*: zer duenik igartzea.
 20.: *Siempre*: Behin-betiko.
 22.: *Celo*: Ar-eme-kara.
 26.: *Desprendiéndose*: utziz eta erantziz.

- 27.: *Desmembrarse en desierto*: Atalez atal eremu bilakatuko da.
- 30.: *Florecen*: Loretan daude.
- 33.: *Ignoto*: Ezagutzen ez duena
- 33.: *Rondar*: Inguruan ibili.
- 34.: *Ilimitado*: Azkenik gabe.
- 36.: *Acoger*: Beragan hartzen ditu.
- 38.: *Felino*: Katu-itzal.
- 38.: *Reconciliación*: Baketzea dakarkidan.
- 43.: *Ensimismado*: Bere-baitaratua.
- 44.: *Abandonado*: Bertan behera utzia.
- 47.: *Confundir*: Nahasian agertu.
- 54.: *Invade*: Urpean hartu.
- 54.: *Corro*: Korrika noa.
- 54.: *Es rebelde*: Maldakaitz gertatzen delarik.

Perifrasiaren erabilera zuzena baino gehiago beharrezkoa dirudi gaztelaniaz silaba bakarrarekin ematen diren elementuetan, ezezko edo mugagabetasunaren aurrezkie-tan: “I-limitado”; “Des-membrarse”, “Des-cifrar”. Kasu horietan Juan Mari Lekuonak hitzez-hitzezko itzulpen baten orde, nahiago du euskara jatorreko esaera erabili. Ikus dezagun, adibidez, nola itzultzen duen “des-amado” bezalako neologismoa:

- 41.: *Desamado*: Maitatua ez den.

Itzul gaitzen baina, berriro gogoeta honetara ekarri gaituen izenburura. “Elevación” / “Goraka-gora”. Esaldiak luzeago egiteko joerarekin batera, aipagarria da esaldiak eta kontzeptuak euskara jatorrean emateko joera. Jator-tasunaren joera deituko diogu honi. Izenburuan arre-ta jarritz gero, ikusiko dugu gaztelaniazko izena euskarazko aditzondoarekin ematen duela: “Goraka”, baina gainera arrunta dena: “Gora-goraka”, “-ka” elementua bigarren

atalean jarri beharrea, alderantziz ematen du: “Goraka-gora”, hiperbaton txiki horren bidez hizkeraren adierazkortasuna bilatuz.

Adibide asko daude liburuan zehar. Kasu horietan, beraz, kontzeptu bat euskarazko esaeraren bidez ordezkatzzen du:

- 20.: *Siempre*: Behin-betiko.
- 22.: *Celo*: Ar-eme-kara.
- 23.: *Cascada*: Eguzkia su jausi.
- 32.: *Del fondo del abismo*: Leize-leizetik.
- 43.: *Ensimismado*: Bere-baitaratua.

Joera hau ez da bakarrik esaldiekin egiten, baizik eta aditz nagusi batzuk ere, jatortasunera eta interpretaziora joz itzultzen ditu, batez ere hitz bakar batekin itzuli ezin direnean:

- 27.: *Desmembrarse*: Atalez-atal eremu bilakatu.
- 30.: *Florecer*: Loretan daude.
- 33.: *Rondar*: Inguruan ibili.
- 35.: *Prometer*: Agintzaria dakar.
- 41.: *Trasvasa*: Gorputzetik gorputzera.
- 45.: *Perseguir*: Zabilta nire atzetik.
- 46.: *Andar*: Beragan duen.
- 47.: *Confundir*: nahasian agertu.
- 52.: *Llamar*: Dei dagio.
- 56.: *Fundir*: Urtuta geratu.
- 57.: *No quiere*: Ez da ikus-zale.

Perifrasiaren joera horrek helburu bi betetzen dituela esan genezake. Alde batetik, euskara jator bat –eta ez zuzenean gaztelaniatik hartua– ematea du helburu, baina beste aldetik, poesiaren alde jokatzzen du, hain zuzen ere, erritmoa da balio nagusia Juan Mari Lekuonaren lan literarioan, eta horrela jokatzuz askoz ere orekatuagoak, beti ere

erritmoaren aldetik, poemaren musikaltasunaren aldetik, dira bertso-lerroak.

Jakina da, Juan Mari Lekuonak bere poesiaren erritmoa neurtzeko Nikolas Ormaetxea, Orixeren jarraibidea zuela gogoko. Erritmoa hitzen silaba kopuruek eta bertsolerro barnean sortzen diren hutsuneek osatzen dute. Esan nahi da, hitzen silaba kopurua neurtu behar dela, baina kontuan hartuz, baita ere, hitz multzoak, hitzen arteko loturak, eta izen multzoen joskerak. Ikus dezagun eta *Mimodramak eta ikonoak* liburuko aipua:

Lastaira txirtxildua, lumazko buruki
onirikoa. Haustear senaren puzzlea

Aipu horren erritmo neurkera hauxe litzateke:

3-4 / 3-3
4-3 / 3-3

Ikusten denez errepikapena (bertso lerroaren zesura osteko erritmoa 3-3 da) eta kontrajarpena (4-3, eta ondoren 3-4) izango lirateke erritmoaren bidez osaturiko espresio moldeak. Aipa daiteke, gainera, hiru silabako hitzen inguruan osatzen dela erritmoa.

Ikus dezagun, orain, *Enblemak* liburuko adibide bat, kontuan harturik, baina, liburu biak garai estetiko berekoak direla.

AMODIO IKUSTEZIN

Denboraren karelean,
argiak, bere etengabeko emariz,
betetzen du hutsartea.

Une llaburra geratu egin ohi da,
gero bere baitara itzultzeko
utziz eta erantziz.

Azter dezagun eskema erritmikoa:

Izenburuan badugu jada simetria: 4 / 4.

4 / 4

3-6-3

4 / 4

2-3 / 3-2 / I-I

4 / 3 / 4

2-2 / 3.

Errepikapena eta kopuruaren aldetiko simetria lirateke aipatu beharreko molde poetiko erritmikoak. Azken ohar gisa, esan dezagun adibide biak bat-batekoak izan direla, eta ez dela ahalegin berezirik egin aipuak hautatzeko orduan. Hain zuzen ere, horrek adieraziko luke idazkeraren joera baten aurrean gaudela, erregela edo neurri bihurturiko joera orokor baten aurrean, kontzientziaz osaturiko erritmoaren osaketa estetikoaren aurrean gaudela.

Nikolas Ormaetxea, Orixeren bideak jarraitzeko egi-leak duen joera nagusiaren agerpena besterik ez da erritmoarena. Badira beste batzuk eta laster hitz egingo dugu haietaz.

“Janaritzen”: Hiztegi jaso

Itzul gaitzen berriz, “Goraka-gora” poemaren itzulpe-nera. Han, azken aldakian irakurriko dugu itzulpen hau: “Alimentar”: “Janaritzen du”. Baina lehen aldakia irakurriko bagenu, ikusiko genuke poetak zalantza bat izan duela. Idatzi zuen: “janaritzen du”, baina aditzaren gainean: “elikatzen” idatzi zuen. Sinonimo biren artean zalantzan izan zen eta bat aukeratu zuen. Gure ustez, arrunta ez dena, eta jaso ematen duena.

Horrelako hainbat adibide daude liburuan zehar:

- 18.: *Vencejo*: Irrigo.
 20.: *Urania*: Ortziko.
 20.: *Migratorias*: Pasako hegaztiak.
 21.: *Desgarro*: Zarrasta.
 25.: *Descuartizar*: Laudentzen.
 30.: *Aire*: Eguratsa.
 30.: *Llanura*: Lautada / zabaldegi.
 31.: *Auras*: Arnaspideak.
 33.: *Tajo*: Erortzarik.
 34.: *Anhelo*: Iorana.
 34.: *Cumple*: Asaskatu.
 36.: *Cauce de luz*: Argi-urratsez.
 36.: *Derrotar*: Azpiratu.
 41.: *Opacidad*: Mulkurtasun.
 41.: *Rosas*: Burkailak. Agian gaizki irakurritakoa da.
 41.: *Abandonar*: Eman leku.
 45.: *Vertical*: Zuta.
 45.: *Cómplice*: Sopikun.
 45.: *Curiosidad mortal*: Jakingura galgarria.
 50.: *En sombras*: Ilunduretan.
 54.: *Costas*: Erortzetan.
 55.: *El beso*: Muin emate.

“Katamotz”: Joera garbizalea

“Goraka-gora” deituriko poeman agertzen den beste ezaugarri bat aukeratzen dugu Juan Mari Lekuonaren itzulpengintza estrategiak azaltzeko asmoz. Originalean “Tigre” agertzen da, eta “katamotza” ez da tigrea. Zergatik aldatu du esanahia itzultzaileak?

Esan dugu gorago Juan Mari Lekuonak baduela “jator” izateko gogo berezia bere testuetan. Joera garbizalea da batzuetan agertzen duena, hau da, gaztelaniatik urruntzeko gogoia, oraingo kasuan bezala. Garbizalearen beste ezaugarri bat da bazterreko hitzak erabiltzea, Behe Nafarroako

“sopikun” hori bezala. Edo beste adibide bat ematearren, “pretil”, “karel” gisa itzultzen du.

Garbizale zeinu hori nahasturik dago Olerkarien eraginarekin. Orixeren eragina aipatu dugu erritmoaren moldaketaren orduan. Orain ere Nikolas Ormaetxea, Orixe ez dago urrun, eta olerkariak erabilitako hainbat hizkera adibide agertzen dira itzulpenean.

- Hiperbatonak:

- 18. or.: Batzen ditu bi munduak.
- 22. or.: Zuritasunaren-ildotik zabaltzen dira hegal bi baketsuak.
- 24. or.: Jelazko basamortua ad infinitum du zabaltzen.
- 32. or.: Leize-leizetik hegatzeari ziotenean ekin.
- 46. or.: Nahi ezean du zauritzen.
- 49. or.: Bi hegatzik naute elikatzen (zuzendua agertzen da).

- Elipsiak, bai artikuluairena, bai aditzetan.

- 17. or.: Eta honek izarra jaso.
- 44. or.: Egunsentiaren zangan zurbilik berriro ilargia.
- 46. or.: Eta bere itzala murrizten.
- 18. or.: Isiltasun.
- 21. or.: Zarrasta eta zorabio.
- 22. or.: Bakardade.
- 24. or.: Ezerezaren aginte.
- 38. or.: Batasun.

- Hitz konposatuen joera.

- 36. or.: Argi-urratsez.
- 38. or.: Katu-itzala.
- 43. or.: Bere-baitaratua.

47. or.: Aurre-atzeak.

50. or.: Zehar-etzana.

Itzulpen espresiboa

Joera guztiak batera jarrita, ondorio gisa, esan dezakegu guztiz espresiboa dela Juan Mari Lekuonak eskaintzen duen itzulpena, batez ere euskarari begira egiten duela, lehen-lehenik, itzulpena. Gaztelaniazko originala begi-bistan du, jakina, baina hori interpretatu egiten du, eta arreta euskaraz idazten duenari jarri dio. Bai erabilitako jator-tasunagatik, bai aukeraturiko strategiagatik, euskarazko bertsoia oso poetikoa dela esan dezakegu. Euskarako bert-sioak ez du galtzen originalarekin konparatuz gero. Juan Mari Lekuonak bere poeta sena jarri du itzulpena egiteko orduan.

5. Gure argitalpena

Argitalpena egiteko orduan, transkribapen zuzena egi-tea erabaki dugu, ahalik eta zehatzena, ahalik eta argiena. Juan Mari Lekuonaren letra irakurgarriak eta zuzenketa gutxi egoteak lana erraztu egin dute. Beraz, testuan zerbait zuzentzen bada, poemaren behealdean agertzen dugu aldaki hori. Aldaketa izenburuan gertatu bada, “Izenburua” jar-tzen dugu. Bertso-lerroan gertatzen bada zuzenketa, bertso lerroaren zenbakia jartzen dugu, eta ondoren hobetsitako hitza, eta puntu biren ostean lehen-lehenik jarri zuena eta ezabatu zuena.

Adibidez:

ISILTASUN

Irrigo baten hegadak
batzen ditu bi munduak,

lainotan mukurutzen direnak,
 eta ilargia bakarrik
 ausartzen da berauek esnatzera.

1991-VI-3

Izenburua: ISILTASUN: IXILTASUN
 5 da: delarik

Kasu honetan aldaketa bat geratu da Izenburuan. “Isiltasun” hobetsi zuen Juan Mari Lekuonak, “Ixiltasun” zuzendu ostean. Eta 5. bertso lerroan, “delarik” idatzi ostean, ezabatu egin zuen eta “da” onetsi. Poema asko eta asko horrelako aldaketa txikiz agertzen dira, beraz ez da argitalpen arazorik agertzen.

Beste kontu bat da “Goraka-gora” poema. Honek hiru aldaki agertzen ditu-eta. Lehenik ontzat emandako hirugarren aldakia eman dugu, eta ondoren, aurreko aldakiak direla adieraziz eta barra artean, lehen aldakia eta bigarrena. Bakoitzaren barnean ere badira hitz ezabatuak eta aldaketak. Kasu guztietan beste poemekin bezala jokatu dugu: lehenik bertso-lerroaren zenbakia jartzen dugu, eta haren ondoan, oniritzia duen hitzaren ondoren lehenengo zegoena eta ezabaturik agertzen dena.

Bada argitalpenerako arazoa sortzen duen egilearen beste jokabide bat. Esaldia idatzi ostean, ordena aldatu egin zuen, 1-2- eta 3 zenbakiak jarriz. Adibidez:

ALDAKUNTZA

Eta hasi zuen heriotzak
 bere harrapakin lana hego batzuetan;
 eta hauek, iadanik arinago,
 izarren kudeatzaileak eraginik,
 leize-leizetik
 hegatzeari ziotenean ekin.

4 kudeatzaileak: kudeatzaile hark
 5 ziotenean ekin: |² ekin |¹ ziotenean

Kasu honetan eta 5. bertso-lerroan “ekin ziotenean” idatzi zuen idazleak, eta ondoren, “|² ekin, |¹ ziotenean” aldatu zuen, hiperbatona sortuz. Bere borondatea jarri dugu tes-tuan, eta gero oharretan, berriro, lehen aldakia eman.

Beste kontu bat agertzen da egileak jarritako barne oharrekin. Horiek dauden-daudenean uztea erabaki dugu. Adibide honetan bezala:

Pasako hegaztien atzetik
 Alexandriara edo hego-itsasoetara
 eta ortziko askatasunean
 behin-betiko galduta ibili izarrekin batera,
 uhainek beztidura⁽¹⁾ ehotzen duten bitartean

1991-VI-4

1) hil-jantzia

“Beztidura” hitzaren ostean agertzen den “⁽¹⁾” hori egi-leak jarritakoa da eta oin-oharrera bidaltzen du irakurlea. Poemaren behe aldean “beztidura” hitzaren sinonimoa ematen du: “hil-jantzia”, hain zuzen.

Ikusten denez, bada, saiatu gara ahalik eta fidelen trans-kribatzen testua, irakurleak izan dezan begien aurrean Juan Mari Lekuonaren idazkeraren trebezia.

ENBLEMAK

Yon eta Miren:

Ederrak gaiez
diztiratsu hitzez
osagai poetiko hauek
–euskara apalean: nirean–
Zuentzat bihotzez

Juan Mari

1991ko Uda

2 gaiez: gaia

GORAKA-GORA

Katamotz bat zelatan dago gatzarrizko altzotik,
eta beti han den izarrak janaritzen du
gauero
egunsentia etorri arte,
eta honek izarra jaso, bere argizko
izaretan.

1 zeletan

1 altzoan

AURREKO ALDAKIAK

[GORAKA-GORA

Katamotz bat zelatan gatzarriaren altzoan
eta etengabe izarrak elikatzen / janaritzen du
gauero
egunsentia etorri arte,
eta biltzen ere / du bere argizko izaretan

1991-VI-3]

4 etorri: bete

5 ere du: duen

5 ere | (originalean horrela agertzen da).

[Katamotz bat zelatan dago gatzarrizko altzoan
eta beti han den izarrak janaritzen du
gauero
egunsentia etorri arte,
eta honek izarra jaso du bere argizko izaretan.]

1 altzoan: altzotik

1 beti han den: etengabeko

2 janaritzen: elikatzen

5 honek izarra jaso: biltzen ere

ISILTASUN

Irrigo baten hegakak
batzen ditu bi munduak,
lainotan mukurutzen direnak,
eta ilargia bakarrik
ausartzen da berauek esnatzera.

1991-VI-3

Izenburua: ISILTASUN: IXILTASUN

5 da: delarik

KOUROS

Estatua baten xurumurrua...
eta orrialde lotsatia tolestatu egiten da
eskuari ukatzen zaiolako zer duen igartzea.
Gera bedi, bada, harrian
pentsamentua zirikatzen duen bertsoleerro hori.

1991-VI-3

1 tolestatu: tolestatzen

3 duen: dakienaren

MENTURAZALEA

Pasako hegaztien atzetik
Alexandriara edo hego-itsasoetara
eta ortziko askatasunean
behin-betiko galduta ibili izarrekin batera,
uhainek beztidura⁽¹⁾ ehotzen duten bitartean

1991-VI-4

- 1) hil-jantzia
- 5 beztidura: bestidura
- 5 bitartean: artean

ZARRASTA ETA ZORABIO

Eguzkiari aginka dagion lehoia
odolez eta suz zutitzen da,
gero, ilunabarra datorrenean,
bere buru amurusa makurtzeko
uhain zurbiletan

1991-VI-4

1 Eguzkiari: eguzkitan
1 aginka: hozka
1 dagion: dagien
1 leihoak: leihoak
3 gero: eta gero

BAKARDADE

Sabai mugikorra,
zozoen ar-eme-kara,
eta otsaileko ilgora.
Nire irrika asetzeko
aski litzateke loretan dauden
laranjen usain gozoa...

1991-VI-22

BERRIRO ELKARREKIN

Pozaren iratzeak
eguzkia isurtzen du mila su-jauzitan.
Bera eztañdaz
iluntasuna hondoratzen da
nola untzia urdinean.
Zuritasunaren-ildotik zabaltzen dira
hegal bi baketsuak.

1991-VI-22

1 iratzeak: iratzeak eguzkia

2 mila su-jauzitan: azken gabeko su-jausitan/
su-jauzitan / (irakurri ezina)

3 zuritasunaren ildotik: marra zuritan

EZEREZAREN AGINTE

Espejismo batek ere ez du lasaituko
Erythaco deritzan hegazti hori
zeinak ez bait du lagunik onartzen
adar gainean,
eta inguruan ere
jelazko basamortua *ad infinitum* du
zabaltzen.

1991-VI-22

2 Erythaco: Erytaco
6 *ad infinitum* du: zabaltzen du
7 zabaltzen: *ad infinitum*
7 zabaltzen: zabaltzen du

EDO BIZITZA EDO AMETSA

Itzal emankorra zigilatzeke
edertasuna hurbiltzen da
eta berehala ihesi doa
ametsa laurdentzen duen egunsentitik.

1991-VI-22

1 zigilatzeke: (Irakurri ezina)
4 laurdentzen: hautsikitzen
4 egunsentitik: eguntik

AMODIO IKUSTEZIN

Denboraren karelean,
argiak, bere etengabeko emariz,
betetzen du hutsartea.
Une llaburra geratu egin ohi da,
gero bere baitara itzultzeko
utziz eta erantziz.

1991-VI-22

6 utziz eta erantziz: erantziaren erantziz
biluziaren biluziz.

NATUR ZIENTZIA

Jakintsua da harria
haizeen gogoa bere burua ezagutzen duelarik
eta badaki hondar izatea dela bere destinoa.
Atalez-atal
Eremu bilakatuko da
eta eragin amultsuz
ohostuko dio urari
arrosa izatea.

1991-VI-22

Izenburua: NATUR: BEREZKO

ESKAINITZA

Ura,
haize,
izatearen egunsentia,
oraindik lo datza lurra.
Sua nire bi eskuetan.

1991-VI-22

ASKATASUN

Eguratsaren iturri ikusezinetik
Ase ohi da lautada / zabaldegia.
Eta loretan daude zelaiak.

1991-VI-22

ALKOLAREN GAITZA (KALTEA)

Aurpegiaren ederrenak
utzi ohi ditu bere arnaspideak
eta urratzen dira izpirituaren bideak.
Bere begi lainotsuetan
Mr. Hyde-ren begirada hila ageri da.

1991-VI-22

5 hila: hutsa

ALDAKUNTZA

Eta hasi zuen heriotzak
bere harrapakin lana hego batzuetan;
eta hauek, iadanik arinago,
izarren kudeatzaileak eraginik,
leize-leizetik
hegatzeari ziotenean ekin.

4 kudeatzaileak: kudeatzaile hark

5 ziotenean ekin: |² ekin |¹ ziotenean

ARRISKUAN BIZI

Trapezistak oldar hirukoitza
sare gabe egin oi duen antzera
erortzarik sakonenaren ertzetik
ezagutzen ez duenari jarraituz doaz oinak
putreak inguruan dabilzan artean.

1 ertzetik: (Irakurri ezina, irakurri ezina) zehar

2 jarraituz: atzetik

HEGADA

Hodeien, erreken,
lur bustiaren iorana,
asaskatu du hegaztiak
bere ibil-bira askean;
oihanen, mendi-tontorren
eta azkenik gabe izateko
ahalmenaren iorana. asaskatu.

4 ibil-bira: adar-bira

ONGIA EGIN

Marmola zurien artean
urrezko iturria bezala diz-diz dagi
esku arretatsu hark:
sendotasun-agintzaria dakar
eromenak kendu adina ekarri ere.

ORAIN

Begiek beren argi-urratsez
azpiratu dute hitz mordazutua.
Denboraren lokatz ilunak
bere burua du irensten.
Dizdiratzen da unea
eta betearen hainbat alderdik
beregán hartzen ditu gure buruak.

KALIGRAFIA

Urak ere ez du bere esku dardatziz
eraldatzen zorioneko zaldun baten
idazkera sendoa,
letra ederra,
zehatz-mehatz josiriko esaldia:
Yo-ho-ho, and a bottle of rum!

2 Eraldatzen: eraldatzen da

BATASUN

Itzalitako hirian
katu-itzala zait
baketzea dakardidan
aingeru guardakoa.⁽¹⁾

1) zaindaria

EZINBESTEKO MAITASUNA

Herioan bizi naiz
apeptxori politta gurutzetik
askatzeagatik,
maite dudana nire gorputzeko
gurpilean iltzaturik,
geldi, eta gotor eta betirako argi,
amodioz zauriturik.

2 (Irakurri ezina)

3 (Irakurri ezina) laguna

4 |² nire gorputzeko / gurpilean

5 |¹ maite dudana |³ iltzaturik,

5 iltzaturik: sarturik

BIHOTZA ETA LAU OSAGAIAK

1. Ura bihotzean
 maitatua ez den aurpegi baten
 area idorrek asetzeko
 eta haren lehen begirada
 diz-diz aurkitzeko:
 arimaren begiak
 Maitasunaren taupada ezkutuan marraztuak

2. Eguratsa bihotzean
 eta ahoz-aho
 gorputzetik gorputzera doa bizi-arnasa.
 Haizearen bihurriak (gurpilak)
 berekin darama haragiaren hondamendia
 eta gardentasunean urtzen du
 mukurutasun isila.

1. 2 ez den: gabeko
1. 4 |² diz-diz aurkitzeko:
1. 5 |¹ haren lehen begirada
1. 6 |³ arimaren begiak
1. 7 marraztuak: idurikatuak (irakurri ezina)

3. Izan atsedean nire bihotzeko lurrean,
 ase zaitetz bertako fruituez,
 eman leku haren burkailetara /harkaitzetara igotzeari,
 usai gozotan eramango zaituzte
 mozkortzera
 igogaitza den purpurazko toki-unean.
4. Han su-hartzen dute ardagaiek
 adar-abar hilkorrak
 su bakarrean biltzen diren hartan.
 argi-buruak itzulikatzen dira
 ingurubirako kosmosaren
 kristalezko itsasoan.
 Sutan dagoen bihotzaren
 dirdai miragarriak dira,
 odol maiteminduak azkartuak
 eta iadanik inoiz ez du hodeiaren beltzak
 estaliko bere itzalpean.

IV. 2 |² su bakarrean biltzen diren hartan

IV. 2 diren: direnean

IV. 3 |¹ adar-abar hilkorrak.

IV. 4 |³ argi-buruak itzulikatzen dira

BERE-BAITARATUA

Bere buruaren mezulari,
bere baitan ezkututzen denak,
nire besoetan uzten ditu
jazminaren zantzuak
eta haize otxanak baino meheago
joko du bere atean.

3 nire: uzten ditu / uzten nire

BERTAN BEHERA UTZIA

Eguntsiaren zangan
zurbilik berriro ilargia.
Egunak dira
maitea putzuan galdu zela.
Isiltasun eraztunak esposatzen nau ni.

5 esposatzen nau ni: ezkontzen nau ni.

5 esposatzen nau ni: dit desposorio

JAKINGURA GALGARRIA

Zergatik oraindik zabilta nire atzetik?
Hondar mugikorrek irensten dute iadanik
Nire sendotasun zuta
Lawrence-k ikusten duen artean, “sopikun”
Hutsartean berak dagion xurgapena.

Izenburua: GALGARRIA: HILKORRA

ERRUGABETASUNAREN ITURRIAK

Biluzik doa korrika ura
eta oliondo bati lotzen zaio gardentasunean,
baina beregan duen kristalak
nahi ezean du zauritzen;
horregatik aldegiten du
eta bere itzala murrizten.

4 nahi ezean: nahi gabez

JOHNY GUITAR

Haizeteak astintzen du
lotan zegoen pistola
baina ilargia irudien barnean
argitasun birjinaz sartzen da
beren aurre-atzeak
nahasian agertu arte.

3 ilargia: ilargiak
3 irudien: irudiet
6 agertu: ipini

IZATEAZ ETA BEGIRADAZ

Bi hegaztik elikatzen naute
nire bihotzeko zuhaitzean
beren malkoak asetzen dituzten bitartean;
ikuspena eta hutsarteak dira.

1 |² naute |¹ elikatzen

4 ikuspena eta hutsarteak: ikuspenak eta hutsarteak

JOSAFATEKO ZELAIA

Lainoan zehar-etzana
zeruloretan urdinean dut atsedean iadanik,
gero eta oiartzun amorruzkoagoek
oraindik diztirak ateratzen dizkioten bitartean
nire maitasun buru motzaren ⁽¹⁾ diamanteari.

1) buru motzaren

IZENBURUA: ZELAIA: ZELAIA

1 Lainoan: Lainoeta

2 atsedean: atsedena

4 dizkioten bitartean: dizkiotelarik

5 buru motzaren: burua moztutakoaren

URTEEN ISPILU

Ametsaren zilarrezko untzia
gaueko / ilunduretan / itzaletan galtzen da,
hondamendiko ura baizik uzten ez duelarik
Irrika asekaitez nabari den lekuan.

4 nabari: ikusten

BERE BURUA HIL DUENA

Haren aho zuriak
dei dagio heriotzaren elurrari;
haren bihotz kateatua
eskaintzen zaio irensten duen
golgoko aingeru beltzari.

4 eskaintzen zaio irensten duen: eskaintzen zaio

|² golkoko aingeru

5 golkoko aingeru beltzari: beltzari |¹ irensten duen [horri]

MAITEKIRO ZAI

Diztira zelatan ari zaio
errekaren antzo
nigan etxea duen
oihanezko irlan,
baina ertzean mirtoak
ez du bereganatu oraindik
lorearen betea.

1 zelatan: zalatan

AUSARTZIA

Itsasoak urpean hartu du nire bihotza.
saltaturiko zaldi bat
amiltzen da nire gorputzeko
erortzetan.

Korrika noa, nire ur-bazterretatik ihesi
ur-begia bera denerantz,
non oraindik etxekotu gabeko ura
moldakaitz gertatzen delarik formetara;
han mendena hartzen nau bere borrokak
esanez: haren bizitzaren truke zeurea.

2 zaldi: zaldia

7 delarik: den

7 formetara: formaren

8 bere borrokak: han diren borrokak

9 zeurea: zurea

MUIN EMATE

Udaberri-besoak
iluntasunean.
Haren ahoko haize garbiak
bizten du su geldoa
hondarraren
mila plegutan gordea.

GORPUTZ

Lotan dagoen sorbalda izoztuak
bere edertasunean uxatzen du
halabeharraren zorabioa;
liburuei errotik-ateratako
hitzen espirala
urtuta geratzen da.

ITSUTASUN ARGIA

Petaloak hersten dira
ihintzaren jelsiaz
eta usain betegarri bat
zabaltzen da Hades aldean.

Perséfone ez da argia ikusi-zale.

27-VII-1991.

BIBLIOGRAFIA

- AULESTIA, Gorka (1993): “Juan Mari Lekuona: entre la poesía culta y la literatura popular”. *Mundaiz*. 45. 37-48.
- AULESTIA, Gorka (2008): “Juan Mari Lekuona gogoan” in OTAEGI; Lourdes (koord.): *Juan Mari Lekuona hurbiletik (1927-2005)*. Oiartzungo Udala-Euskaltzaindia. Oiartzun. 35-59.
- AYERBE, Enrike: “Naturaren eta paisaiaren poetika” in AYERBE, Enrike (koord.): *Geografia simbolikoa. Espazioen kultura*. Etor-Ostoa. Lasarte-Oria. 1999. 112-125.
- GARCÍA TRUJILLO, Sebastián (2007): *Herri maitea, herri dorpea. (Bitoriano Gandiagaren Hiru gizon bakarka poema liburua; hurbilketa kritikoa)*. Euskaltzaindia-BBK Fundazioa. Bilbo.
- GOIKOETXEA, Arkaitz (2006): “Juan Mari Lekuona”. In ELKAR-LANEAN: 2005. *urte beltza*. Bertsolari Liburuak. Donostia. 12-29.
- ITURBIDE, Amaia (2000): *B. Gandiaga, J.A. Artze eta X. Leteren poemagintza. Poesia tradizionalaren bidetik*. Erein. Donostia.
- (2002): *Mimodramak eta ikonoak gidari, estetika barrena*. Arabako Foru Aldundia. Gasteiz.
- JANES, Clara (1991): *Emblemas*. Caballo griego para la poesía. Madril.
- KORTAZAR, Jon (1989): “Juan Mari Lekuonaren olerkigintza bideak” in *Laberintoaren oroimena. Gure garaiko olerkigintzaz*. Baroja. Donostia. 171-201.
- KORTAZAR, Jon; KORTAZAR, Paulo (2008): “Juan Mari Lekuonaren Ibaiak Basamortuan. Poesia liburu baten historia” in

- LEKUONA, Juan Mari: *Ibaiak Basamortuan*. UPV- EHU Argitalpen Zerbitzua. Leioa. 9-51.
- KORTAZAR, Jon (argbea): “Arteen arteko elkarrizketa”. Euskaltzaindiak argitaratzeko.
- KORTAZAR, Jose Mari (2005): *Erljio gaia Gandiagaren poesian*. Desclée de Brouwer-ITP. Bilbo.
- LEKUONA, Juan Mari (1996): *Ibilaldia/Itinerario (1950-1990)*. Argitalpen Zerbitzua. Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioa.
- LEKUONA, Juan Mari (2008): “Ene mundu estetikoaz” in OTAEGI, Lourdes (koord): *Juan Mari Lekuona hurbiletik (1927-2005)*. Oiartzungo Udala-Euskaltzaindia. Oartzun. 143-161.
- LERTXUNDI, Anjel (2008): “Juan Mariren eskolan”. OTAEGI, Lourdes (koord): *Juan Mari Lekuona hurbiletik (1927-2005)*. Oiartzungo Udala-Euskaltzaindia. Oartzun. 63-76.
- LETE, Xabier (2008): “Juan Mari Lekuona, maisu eta lagun”. OTAEGI, Lourdes (koord): *Juan Mari Lekuona hurbiletik (1927-2005)*. Oiartzungo Udala-Euskaltzaindia. Oartzun. 17-33.
- OTAEGI, Lourdes (koord) (2008, a): *Juan Mari Lekuona hurbiletik (1927-2005)*. Oiartzungo Udala-Euskaltzaindia. Oartzun.
- OTAEGI, Lourdes (2008, b): “Juan Mari Lekuonaren Bibliografia” in *Juan Mari Lekuona hurbiletik (1927-2005)*. Oiartzungo Udala-Euskaltzaindia. Oartzun. 185-207.
- PEREZ GAZTELU, Elixabete; TOLEDO LEZETA, Ana; ZULAIKA IJURKO, Esther (2005): *Juan Mari Lekuona (1927)*. Bidegileak. Eusko Jaurlaritz. Gasteiz.
- VILLANUEVA, Darío (1991): *El polen de las ideas*. PPU. Bartzelona.

AURKIBIDEA

Sarrera orokorra	5
------------------------	---

<i>Preliminar</i>	7
-------------------------	---

EMBLEMAS

<i>Índice</i>	59
---------------------	----

<i>Biografía</i>	61
------------------------	----

ENBLEMAK

Sarrera	65
---------------	----

1. Juan Mari Lekuonaren biografia	66
---	----

Hurtzaroa eta familia	66
-----------------------------	----

Apaiz bizitza	67
---------------------	----

Unibertsitateko irakaslea	68
---------------------------------	----

Poesia idazketa	68
-----------------------	----

2. Juan Mari Lekuona itzultzaile	69
--	----

<i>Emblemas</i> liburuaren itzulpenaren arrazoia	72
--	----

Ohar estetikoak	73
-----------------------	----

4. Itzulpenaren azterketa	81
---------------------------------	----

Lehen aldakia	81
---------------------	----

“Elevación” / “Goraka-gora”. Luzera doan itzulpena	85
--	----

“Janaritzen”: hiztegi jaso	90
----------------------------------	----

“Katamotz”: joera garbizalea	91
------------------------------------	----

Itzulpen espresiboa	93
---------------------------	----

5. Gure argitalpena	93
---------------------------	----

ENBLEMAK

Goraka-gora	99
Isiltasun	101
Kouros	102
Menturazalea	103
Zarrasta eta zorabio	104
Bakardade	105
Berriro elkarrekin	106
Ezerezaren aginte	107
Edo bizitza edo ametsa	108
Amodio ikustezin	109
Natur zientzia	110
Eskaintza	111
Askatasun	112
Alkolaren gaitza (kaltea)	113
Aldakuntza	114
Arriskuan bizi	115
Hegada	116
Ongia egin	117
Orain	118
Kaligrafia	119
Batasun	120
Ezinbesteko maitasuna	121
Bihotza eta lau osagaiak	122
Bere-baitaratua	124
Bertan behera utzia	125
Jakingura galgarria	126
Errugabetasunaren iturriak	127
Johny Guitar	128
Izateaz eta begiradaz	129
Josafateko zelaia	130
Urteen ispilu	131
Bere burua hil duena	132
Maitekero zai	133
Ausartzia	134
Muin emate	135
Gorputz	136
Itsutasun argia	137

